

FUNTSEZKO ALIANTZAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko, hainbat aliantza egingo ditugu. Gure karkasa plastiko gogorraz eginda egongo da. Hori ekoizteko, Irunen plastiko gogorrarekin lan egiten duen enpresa batekin kontaktatuko dugu haiek moldeak ekoizteko eta horri esker karkasa egiteko. Bestalde, gure proiektuak bentilazio sistema bat behar duenez, motorrak ekoizten dituen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara gure aterki lehorgailuaren bentilazio sistemaren motorra edukitzeko. Azkenik, gure aterki lehorgailuak sensore bidez funtzionatu behar duenez (aterkia bertan sartu eta sensoreak aterkia antzematen duenean lehorgailua piztuko da eta aterkia lehortuko du), elektronika sistemak eta elikadura sistemak erosi beharko ditugu. Horri esker, dena aurrera ateratzeko gai izango gara eta motorrak bere funtzioa beteko du.

Bi aliantza hauek berezizko garrantzia daukate gure proiektua gauzatzeko. Hala ere, guretzat garrantzitsuena motorra ekoiztiko digun enpresarekin egingo dugun aliantza da, izan ere, motorra da gure aterki lehorgailuaren funtsezko elementua, eta hori gabe gure proiektua ezin dugu gauzatu. Horrenbestez, motor on bat izatea oso garrantzitsua da. Gainera, aliantza hau enpresa anonimo batekin egingo dugu, hau da, ez dugu gure aliantza enpresa handi batekin egingo, izan ere, enpresa handiei motorra ekoiztea eskatzen badiogu gure ideia lapurtzeko arriskua dago eta hori ekidin nahi dugu.